

# 7. GAIA: MUNDU GERRAK ETA GERRA ARTEKO GARAIA

## 1. SARRERA: TESTUINGURU HISTORIKOA (1914-1945)

Aurreko atalean ikusi dugunaren laburpen moduko bat da hau

- MASA GIZARTEA (1870-1914)
  - Euforia liberalaren garaia da (liberalismoa, kapitalismo klasikoa, zientzia...).
  - Sistema liberala, kapitalismoa, gailentzen da (zientzia erlijioari gailendu)
  - Erabateko ziurtasuna egongo da aipatutako sistema hauek izango direla aurreratuenak eta onenak.
  - Estatu indartsuek, nazionalismo kontserbadore eta erasokorra bere eginez, **lehia Inperialistari** ekingo diote. Inperio zabalena duen herriak, ahalmen inperialista hori 'erabiliko' du bere garapenaren seinale/froga bezala. Batez ere Afrikan gauzatzen da eta planteamendu horiek legitimo bezala hartuta, zeinek lortzen duen inperio handiena = gu gara naziorik onena, garatuena
  - Garai honetan ere liberalismoaren ideien sakontzea ematen da **langile mugimenduaren eta feminismoaren** (lehengo olatua) borrokei esker. Bi mugimendu hauek hasierako liberalismo eta demokrazien erradikalizazio eta zabaltzen bat eskatuko dute, eta giza talde guztietara zabaltzea ideia hauek.
  - Hierarki bat dago gizartean, langileak esaterako *Gentelmenen* azpitik daude. Emakume burgesak ere, berdin, gizon burges baten azpian zegoen.
  - Agintean zeuden klasean hau mehatxu bat bezala ikusi zuten, hierarkia horren azpian dauden pertsonak boterea lortu nahian daudelako.
  - Zientzia ondorengoa hasiko da esaten: giza eta gizarte eboluzioak ez du zertan egin aurrera, eta kasu batzuk ikusi dira, adb homosexualitatea (Atzera pausu bat bezala ikusten zuten pertsonengan homosexuala izatea)
  - Batzuk **eugenesiaren** biderei ekingo diote, bereziki naziak. Planteamendu honek *Darwinismoarekin* lotura du, giza taldearen

perfekzioan oztopoak jarri dituztenei eraldaketa genetikoak eginez giza gorputzak moldatzea giza talde horren perfekzioa berriro lortzeko. Honen helburua, gizaki perfektua lortzea da. Adb: Hitlerrek holokaustoaren bitartez, Espainian hezkuntzaren bitartez (erlijioarekin).

- Masa mugimendu hauek ikara eragiten dute klase agintarien artean. Beldur hau nolabait alboratzea lortuko da I Mundu Gerraren koiunturari esker. Beldur hau alboratuta geldituko da I.M.G-k eragingo baitu, bi gizarte mugimendu horien planteamendua albo batera geratzea, nazioaren defentsaren mesedetan. Nazioek dei egingo diete beren herritarrei nazioaren alde egiteko. Identitate nazionala denaren gainetik, beste mugimenduak azpitik.
- I.M.Gren koiunturari esker: identitate nazionalari egiten zaion interpelazioak bestelako aldarrikapenak (ezberdintasunak), momentuz, albo batera uztea eragin zuen, nazioaren/estatuaren aldeko borrokaren mesedetan. Identitate nazionala gailentzea lortuko da, feminismoaren gainetik, langileen gainetik. Momentu horretan mugimendu horiek alboratzea lortuko du. 1MG bukatzean, masen irrazionaltasunarekiko mamua berriro agertzen da, bereziki 2 gertaerek bultzatuta.
- GERRA BUKATUTA, MASEN IRRAZIONALITASUNAREN MAMUA BERPIZTEN DA bereziki bi gertaerek bultzatuta:
  - Langilegoaren lehen garaipena eman da (**Iraultza boltxebikea**).
    - SESBn iraultza eman da, eta nazioartean beldurra nagusituko da; langilegoa altxatzeko beldurra.
    - Gerra arteko garaian gertatuko den *seu* iraultza ere garrantzitsua izango da
  - 1920.ko hamarkada eroa, **sexu iraultza**:
    - Gerra ondoren carpe diem delako ideia zabaldu zen, oraina biziitzea (gerra ondoren jendea nazkatuta zegoen gerraz, gerratik bueltan batzuk hanka gabe... etortzen ziren beraz lasaitasunaren ideia gailendu zen, oso gogorra zelako egoera) eta testuinguru horretan sortu zen sexu iraultza
    - Desira homosexuala, androginia (gizon-emakume balantza horretan, erdibideko zerbait litzatekeena; ordura arte oso gaizki ikusia), emakumeek kaleak hartu. Modak emakumeak

gizonezkoen antzeko zerbitu bihurtzen ditu, “*sin curvas*” adibidez.

- Hedonismoa.
  - Dantza erritmo eroak.
  - Etorkezunarekiko esperantzarik ezetik momentua bizi (“arduragabekeria”).
  - París, los locos años 20 (RTVE):
  - <https://www.youtube.com/watch?v=LtPIkWhTU1w>
- 1929. Krakaren eragina. Honek orain arteko *carpe diem* hau gutxitzen lagunduko du.
  - Garai honetan eragin handia dute masen jokabideak aztertzen dituzten analisi zientifikoek (batez ere psikoanalisiak eta soziologiak), bereziki Sigmund Freuden teoriak harrera ona izan zuen; bere ustez:
    - Masak talde homogenea dira.
    - Masek ez dute borondate autonomorik
    - Masak pultsu irrazionaleri jarraituz mugitzen dira (ez arrazoiei jarraituz) pasioak bultzatuta funtzionatzen dute.
  - Psikoanalisiak barneko ni-aren egia aztertzen du eta hau bideratzeko teknikak garatzen ditu. (indibiduo aztertzen du, norbanakoa, bakarka)
  - **Hedabide masiboen bidez** (bereziki euskarri berriak) pultsu irrazionalak bideratu daitezke hedabideak kontrolatuz gero, **ordena soziala mantendu** daiteke. Emozioetan oinarritzen diren hedabideak proposatuko ditu, ikus-entzunezko bideoak, prentsa sentsazionalistak (emozioei bideratutako mezuak bultzatzen dituen komunikazio forma da prentsa sentsazionalista)
  - Masekiko beldurra dago garai honetan argi eta garbi. Nola masak eremu (akademiko eta sintetikoak) ezberdinak inbaditzen ari diren, zientzia batzuk garatzen hasiko dira alor zientifikoan, gizakiaren portaeren zergatiak ezagutzeko. Eta hain zuzen elitean dauden pertsona hauek hedabideekin konpintxatu nahiko dute, beraiekin bat ez datozen ideiak zabal ez daitezzen
  - Ondorioak gure gizartean: XX mendearen lehen erdialdean hedabide berrien loraldia: irrati eta zinema (kartelak ere bai, kartelek beren hizkuntzaren bidez mezu emozionalak transmititzeko kapazagoak

izango dira, besteak baino gehiago) Mezu emozionalak egiten hasten dira.

- Mezuak modu masibo batean zabaldu daitezke eta partiduen eta gobernuaren helburua, mezua masiboki zabaltzea izango da.
  - Komunikazio emozionala sortzeko bereziki kapazitateak daude hedabide hauek: Norbanakoaren inkontzientera (barneko *ni* horretara) iristeko bereziki gai direla sinestuko da. Hedabideak gai izango dira sentsazionalismo hau sortzeko.
- Era ezberdinetara, gobernu eta politikariek hedabide hauek erabili edota kontrolatuko dituzte.
  - Garaiko literatura distopikoaren ardurak:
    - Demokrazia liberalen dekadentzia.
    - Erregimen totalitarioekiko gizarte-kontsentsua.
    - Masa hedabideak eta gizarte kontrola, masen otzantasuna.
  - Aldous Huxleyren ideiak: *Mundu zoriontsu bat* (1932). Eugenesiarekin lotua dago. Berak irudikatzen duen etorkizun *distopikoan*, gizakiak manipulatuak daude eta manipulazio horren bidez sortutako gizakiek, ez dute liburuak irakurtzeko interesik, ezta berririk izateko interesik. Lotura handia dute liburu honetako planteamenduek Frankfurteko eskolarekin
    - Eugenesia.
    - Liburuak irakurtzeko interesik ez dago, ez dago debekuaren beharrik.
    - Hainbeste informazio egongo da zirkulazioan, jendea pasibitatean biziko dela, berekoikeriara mugaturik. **Egia garrantzirik gabeko ozeano erraldoi batek itoa egongo da.**
    - Hutsalkeriaren kultura gailendu da.
    - Gizarte hedonista: Berehalako eta etengabeko plazerra eskainiz lortzen da jendea kontrolaturik mantentzea.

## 2. HEDABIDE BERRIEN LORALDIA: KARTELAK, IRRATIA ETA ZINEMA

Hedabide ezberdinak ikusiko ditugu

### 2.1. Prentsa (pare bat ideia bakarrik aipatuko ditugu hemendik)


- Esklusibitatea galduko du. Ya ez da hedabide bakarra izango prentsa , eta irratia garatzen joango den heinean, masa hedabideak beste hedabide batzuk ere kontsumitzen hasiko dira.
- Berrikuntza teknologikoei ekingo die merkatua mantendu ahal izateko.
  - Inbertsio gehienak hauetan
  - Argazkigintzaren bidetik
  - Espezializazioaren bidetik. Publiko jakin bati bideratutako egunkariak joango dira garatzen.
- Gerra Handiarekin baliabide arazoak (eta zentsura/autozentsuraren areagotzea). Gerren ondorioz papera agortuta egongo da eta honek zaildu egingo du egunkariak irakurtzeko eskuragarritasuna. Militarrek esango dute ezin dela edozer publikatu (beraiei eragin diezaioketelako)
- Kontzentrazio prozesua ('29ko krisiak areagotua). Honek eragingo du egunkari batek aurrera segi dezan, enpresa handi bat behar izatea. Ekonomikoki ondo egon behar zara aurrera jarraitzeko. Indartsuenek bakarrik egingo dute aurrera, enpresa handiek.
- *Times* (1923) aldizkariaren estilo berria. Aldizkari oso garrantzitsua izango da hau, eta nolabait esateko nazioarteko mailan eredu gisa hartuko da, beste herrialde batzuk kopiatuko dutelarik

### 2.2. Kartelgintza

XVIII. garaian ya bazegoen baina guri garai honetakoa interesatzen zaigu, mundu gerren garaietan kartela hauek sekulako garrantzia lortuko dute.

- Erabilpen komertziala eta politikoa: diru gutxirekin mezu handia zabaltzea, hizkuntza bisuala askoz eraginkorragoa delako. Kartelgintzak ez du eskatzen zinemagintzak eskatzen duen inbertsio izugarri hori.
- Garapen tekniko eta artistiko garrantzitsua: oso ederrak eta eraginkorrak.

- Irudien eraginkortasuna. Masarekin zerikusia handia dute: mezu simple bat asko helaraztea lortu
- Lema/lelo oso erakargarriak.
- Difusio zabala eta merkea.
- Errekrutatzeak, turismoa, kontsumoa, politika... (kartela eremu hauetan erabili ziren batez ere)
- Nazien adibidea da eredugarriena
- Espainiaren kasuan, Jose Antonio Primo de Rivera diktadoreak (1923-1930) turismoa sustatzeko erabili zituen kartelak



### 2.3. Irratia

- Irratia lehenago sortutako hedabide bat izango da baina garai honetan masifikatuko da, garia honetan egingo da eskuragarri masentzat.
- Telebista agertu arte masa hedabide garrantzitsuena izango da. Eta eskuragarri bihurtu dadin, garapen tekniko oso sakona emango da, hasieran irratia oso astun eta handia baitzen, pixkanaka txikitzen joango dira, eta etxean edukitzea ahalbidetuko du. Eta honek masak erabili dezan ahalbidetuko du
- 1920ko hamarkadatik zabaldu zen bere masa-erabilpena (garapen teknikoak eta transistorea agertzean),
- Ezaugarri garrantzitsuenak:
  - Berehalakotasuna. Hitz egiten dagoenaren eta entzuten ari den pertsonak momentuan daude kontaktuan
  - Nonahikotasuna, edonon entzun dezakezunean.
  - Zentzumenetan –bestearen ahotsa entzuten da– oinarritutako transmisioa. Informazioa entzun egiten da, ez da irakurtzen.
  - Hitlerrek eta Rooseveltek erabilgarria zela ikusi zuten eta haien programa propioak sortu zituzten, horrela jendea etxean irrati saioen “monoarekin” egongo da.
- Erabilpen politikoa.
- **Volksempfänger** VE301 edo “herriaren irratia”
  - Nazi garaiko ikonoa. Hau izango da alemanian agertuko den irrati bat, transistore oso txikia izango da eta oso simple erabiltzeko (E ditu mila botoi izango)
  - 1933ko Nazioarteko Irrati Erakusketa Azokan (Berlin) aurkeztuko da lehen aldiz
  - Merkea eta oso erabilterraza nazien helburua izango da Alemaniako familia guztiek edukitzeko irrati bat beraien ahotsa egunero entzuteko
  - Sekulako publizitatea (prentsan eta karteletan) eman zitzaion.
- Franklin Roosevelt. Presidenteak ere erabili zuen irratia AEBko biztanleriari bere ahotsa entzun zezaten
  - Asteroko irratsaioa zuen: *Fireside Chats (Tximinia-ondoko solasaldiak)*

- Iritzi publikoaren onespina lortzeko.
- 1936ko hauteskundeetan berriz atera zen hautatua Estatu Batuetako hauteskundeetan. Irratsaioak mesede handia egin ziola esan daiteke
- Orson Welles: (*La guerra de los mundos*, Leire Iturregik azaldu ziguna)
  - Munduetako gerraren irratiko adaptazioa
  - Albiste-emanaldi eran kontatu zuen.
  - Izua zabaldu zen New York eta New Jersey hirietan.
  - Irratiaren masen mobilizazio ahalmenak argia zirudien.

## 2.4. Zinema

- XIX. mendean agertuko den euskarria izango da baina bere benetako garapen tekniko zein narratiboa XX. mende hasieran hasiko da eta masa hedabidea bihurtuko da.
- Sekulako garapen teknikoa eta narratiboa
- Filmazio berriemaileen ezaugarriak: informazio forma ezberdinak:
  - Astekariak
  - Konexio narratiborik gabeko albisteak jarraian, proiektatzen ziren
  - Pelikula saioen aurretik
  - 1928 arte mutuak izango dira, soinua agertu arte eta horrek ekartzen du nazioarteratzea. Ez dagoelako hizkuntzaren mugarik, mutuak zirelako.
  - Oso arrakastatsuak populazioaren artean.
- Bi enpresa indartsu (frantsesak): bereziki zinemagintza informatiboan indartsuak:
  - Charles Pathé-ren ***Pathé Journal*** (1896-1981)
    - Londresen ireki zuen *Pathé News* (1910-1976) sukurtsala
    - Frantz Reichelt, Eiffel Dorretik salto jausgailuarekin (1912)
    - Emily Davison sufragista, Epsom Derby (1913)



- León Gaumont-en **Gaumont** (1895-)
  - Bertan egin zuen lan **Alice Guy**-k zinema narratiboaren sortzailea. Bera izan zen zinemaren bidez fikziozko historiak kontatzen hasi zena, horregatik esaten dugu Alice Guy dela zinema narratiboaren sortzailea.

(\* ) David W. **Griffith** (Estatu Batuak) eta Sergei **Eisenstein** (Sobietarra)

- Lehen Mundu Gerra aurretik Frantziak izango du lidergotza zineman.
- 1918 urtetik aurrera (I.M.Gtik aurrera) lidergotza Estatu Batuak lortuko dute
  - Suntsipen materialik ez.
  - Berrikuntza teknologikoen abangoardian egotea lortuko du (soinuaren teknologia hemen sortzen da, hemen hasiko dira soinua sartzen pelikuletan, ya ezta mutuak izango).
  - Filmazioak inbertsio handiak eskatzen ditu, beraz beren lidergotzak indarra hartuko du.
- 1929 urtetik (burtsaren kraka) ekoiztetxe handien domeinua. Hollywood, adibidez.

**3. KOMUNIKAZIOA ETA MUNDU GERRAK (1914-1918 / 1939-1945)** Gerrako estrategien barruan sartzen da propaganda, eta hau emateko era sakondu eta garatu egin zen. Estatuak komunikazioaren garrantzia handia dela ikusiko dute, Hearsten kazetaritza motaren ondorioz, esaterako.

- Limurtze eta propaganda tekniken garapena.
- XIX.mendetik datorren joera bat da
  - Aurrekarien laguntza: XIX. mendearen bukaeratik prentsa sentsazionalistak bizitako garapena.
  - Publizitate komertzialak bizitako garapena: garapena publizitatean eta limurtze tekniketean, pertsuasioan... gauzak erostera konbentzitzera
  - Ikerketa akademikoek/zientifikoek bizi izan zuten garapena. Garapen sakona jasoko dute eta lagunduko dute limurtze eta propaganda egiten.

- Prentsa eta I Mundu Gerraren hasiera.
  - Nazionalismo kontserbadorea eta kompetentzia inperialista. Propagandak sortuko dituen posterrak, artikuluak etab nazionalismo sutsu baten eredu izango dira eta mezu jakinak bidaliko dira oso landuan eta planifikatuak
  - Prentsak etsaitasun-giroa areagotzen lagundu zuen. Horregatik Lehen Mundu Gerra ezandarazi zuela, kontsideratzen da.
  - Jarrera chauvinistak eta norbere herriarekiko izugarritzko konfiantza egongo da.
  - Alemaniako *Die Post* egunkarian agertu zen editoriala:

*“Frantzia ez dago oraindik gudarako prest; Ingalaterra oinazean bizi da barne arazoengatik eta kolonietako arazoengatik. Errusia gerraren beldur da barne iraultzaren mehatxuarengatik. Gure etsaiak prest egon arte itxarongo dugu edo ggure aldeko momentu honi etekina ateratzen jakingo diogu erabakia hartzeko. Hori da erantzun beharreko galdera. (...) **aukera guztiak ditugu irabazteko, erasoaldi ausart baten bidez europar politikaren gidaritzza izan genezake eta geure etorkizuna ziurtatu”.***

(*Die Post*, 1914 urteko otsailak 24).

- Propaganda modernoaren (=propaganda zientifikoa) jaiotza. Propaganda zientifiko, sistematikoa, planifikatua eta ikasia, izango da estatuak egingo dutena.
  - Makineria administratibo handia jarri zen martxan **propaganda “zientifikoa”** gauzatzeko. Profesionalak egongo dira lanean, bulegoetan, eta hiru diziplinetako adituak izango dira: soziologoak, publizistak eta kazetariak. GARRANTZITSUA azterektari begira
  - Soziologiaren eta komunikazioaren inguruko ikerketa zientifiko akademikoak bultzatu ziren.
  - Limurtze mekanismo eraginkorrak aurkitzeko ikerketak.
- Estatu ezberdinek bulego edo propaganda ezberdinak antolatzeko beharra ikusiko dute testuinguru honetan
- Komunikazio planifikatua, indibiduo eta gizataldeen ikerketa sistematikoetan oinarritua.
- Gerra interesen aldeko informazioaren erabilpen masiboa eta sistematikoa. (Goian dagoena; antolatua eta planifikatua)

- Komunikazio masiboa erabiltzeko beharra ikusiko dute testuinguruarengatik. Propaganda egiteko borondatea ez da bat-batean ezerezetik agertzen.
  - Mugimendu bakezaleen indarra.
  - Langile mugimenduaren eta Iraultza Boltxebikearen mezuak. langile askok langile pentsaera albo batera utzi eta Britania Handiak hala eskatuta, gerrara joan → estatuek ez dute inoiz zuzenean borroka egiten.
  - Gerraren iraupenak eta gogortasunak bultzatuko du estatuek propaganda teknikak garatzea. Gerra luzatzen den neurrian, desgaste gerra bihurtuko da, eta gerra psikologikoa izango da; moralki suntsitzea.
  - Gerraren globalizazioak lagunduko du propagandaren garapenean, estatuek ikusteko garapen bat eman behar dela: estatu neutralei eskatzeko nire alde jartzeko eta etsai potoloaren morala hausten saiatzeko.
- Masen lehenbiziko gerra.
- **Armarik gabeko gerraren protagonismoa.** Batzuetan zuzeneko borroka baino gehiago eragingo du, horregatik **gerra propagandistikoak** protagonismoa hartuko du
- Gerra psikologikoaren garrantzia: (Psychological Warfare):
 

*“propaganda eta bestelako ekintzen **erabilpen planifikatua**, zertarako eta helburu nazionalen lorpenarekin bat egite-bidean, kanpotarren, etsaien, neutralen eta lagunen artean iritzi, emozio, jarrera eta jokabide jakinak eragiteko”.*
- Gerra luzatu egin zen neurrian, **desgaste gerra batean bilakatu** zen. Horregatik da horren garrantzitsua gerra honetan komunikazioa. Beste pertsona hiltzea bezain garrantzitsua da bestearen morala lurretik uztea: gerra psikologikoa.
- Propaganda instituzionalizatu egin zen Estatu ezberdinek hartu baitzuten komunikazioaren ardura, eta haiek ireki baitzituzten informazio bulegoak.
- Estatuaren propaganda bulegoak sortu ziren.

- Profesional ezberdinak: bereziki psikologo, soziologo eta kazetariak
  - Britainiarren trebetasuna. Beren trebetasun propagandistikoari esker irabazi zuten.
  - Alemaniarrak atzetik
  - Creel Batzordearen eraginkortasuna (Estatu Batuak)
  
- **Britaniarren trebetasuna**
  - Estatuko erakunde ezberdinak eta ekimen pribatuak. Ekimen indibidual horietako bat luma zuriaren ordena. Armadarekin bat egiten ez zuten britaniarren gizonei, emakumeek luma zuri bat jartzen zieten bere gizonei, koldarrak zirela adierazteko zen hau, gizonaren patriotismo eza erakusten zuen, humillantea oso garai hartako gizonentzat
  - Idazle eta kazetari bikainen kolaborazioa.
  - Gerra dokumentalak, liburuak, diskurtsoak... egin zituzten.
  - Propagandaren domeinu aparta: Munduan nolabaiteko eskola bat sortu zutela esan dezakegu
    - Gezurrik ez esan (Ez esatea Gernika bonbardatu zutela) beraien printzipioa hau zen. Dramatizatu zezaketen baina sekula ez gezurrik esan
    - Mezu kontraesankorrek saihestu.
    - **Idea abstraktuak baino hobeto, gertakariak erabili.**
    - Mezu oro kanpaina orokor baten barruan txertatu. Helburu jakin batera bideraturik, ez ideia sueltoak.
      - Ad: Alemaniarrak deabru hutsak direla
    - Helburu zehatz batera bideratutako mezua.
  - Barneko propagandaren baitan, erreklutatze-deiek protagonismo handia izan zuten. Ad: Gizonen erreklutazioa
  - Errekrutatze kartelak: patriotismoari, inbasio baten beldurrari eta etsaiaren ankerkeriei egiten diote erreferentzia. Txantaila presente zegoen uneoro. hori adibidez oso begibistakoa izan zen Hearstek erabili zituen karteletan, espainiarren ankerkeriak kubakoen aurrean.

- Genero estereotipoak (identitate nazionalari loturik) oso agerian erakusten dituzten kartelak dira (bide batez estereotipo horiek indartzen dituzten kartelak dira).

### The Order of the White Feather (ekimen pribatua)

- Estatuaren barruan sortzen den erakunde bat da, baina ekimen pribatu bat izan zen.
- 1914 urteko abuztuan Charles Fitzgerald Almirantearen ekimenari esker sortu zen erakundea da. (Mrs Humphrey Ward idazlearen laguntza izan zuen)
- Britainiar Ejertzitoan izena emateko zalantzan zeuden gizonak lotsagarri utzi nahi zituen.
- Horretarako erakundeko emakumeek, kalean zibilez jantzita ikusten zituzten gizonen papar-hegalean luma zuri bat jartzen zieten (koldarkeria-ikurra zen, oilar-auskekin (pelea de gallos) lotua dago honen jatorria → buztanean luma zuria zuen oilarraren arraza behe mailakoa zela sinesten zen, oiloaren ezaugarrietatik gertukoa, koldarra).


### Londreseko Emakume Gazteei

- Zure “mutiko hoberenak” Khaki jantzia darama? Erantzuna ezetz bada, eraman beharko luke?
- Zuk eta zure herrialdeak bere borroka merezi ez duzuela uste badu, berak zu merezi zaituela uste duzu?
- Ez sentitu errukirik bakarrik dagoen neska gazteagatik –*bere gizon* gaztea soldadua izango da, seguruenik– bera eta bere herriaren alde, eta ZURE alde, borrokatzen ibiliko da.
- Zure gizon gazteak Erregea eta Herriarekiko betebeharrari uko egiten badio, zuri uko egingo dizun eguna iritsi daiteke.
- SARTU ARMADAN GAUR
- Txantaia



## Gizon Britainiarrek! Hau onartuko duzue

- Argazki baten adaptazioa da. Irudian neskato bat agertzen da, magalean ahur bat duelarik, Scargorough-ko erasoaren ondoren txikituta geratu den eraikin baten parean.
- No.2 Wykenham street, SCARBOROUGH, Abenduaren 16ko bonbardaketa alemaniarren ondoren. **Gizon langile baten etxea** zen. Etxe honetan lau pertsona erailik suertatu ziren, haien artean 58 urte zituen emaztea eta bi ume, txikiena 5 urtekoa.
- 78 **Emakume eta Ume erail** zituzten eta 228 Emakume eta Ume zauriturik atera ziren Alemaniarren Eraso honetan.
- ARMADAN SARTU ZAITEZ ORAIN
- Ideia nagusia: Berdin da zure klase soziala zein den. Britainiarra zara eta gu guztion kontra datorrenez, gerra honetan sartu zaitez.



## Britainiar emakumeek "Joan!" Esaten dute

- Kartelean bi emakume eta ume txiki bat agertzen dira leihoaren alde honetan (ikuslearen tokian).
- Leihoaren beste aldean soldaduak daude (gerrara joaten daudela ulertu daiteke).
- Kartelaren mezuak norabide ezberdinak ditu:
  - Britainiar emakumeak babesar behar duten pertsonak bezala irudikatzen ditu (umeen parean).
  - Babesar behar duten emakume horiekiko gizonen ardurari egiten zaio dei.
  - Emakumeen ardura mezu bat ere luzatzen da: beren inguruko gizonak




armak hartzeko estutu/animatu ditzaten.

- Britainar emakumeak babesa behar duten norbaiten moduan azpimarratzen ditu, eta gizonari “zure familia zaindu ezazu, babestu ezazu”

**“Beranduegi izango da etsaia zure etxeko atean dagoenean, beraz armadan sar zaitez gaur”**

- Bi soldadu alemaniar familia baten etxean sartzen dira beren baionetak helduz.
- Emakume eta gizon bat zutik daude, ikaraz militarren sarrera begiratzuz.
- Aulki baten eserita gizon adindun bat, eta lurrean eserita haurtxo txiki bat (konposizioan nolabait beherago)
- “MEREZI DU ZURE ETXEA/FAMILIARENGATIK BORROKA EGITEA?”
- Kartelak ikusle gizonetzkoak interpelatu nahi ditu (izena eman dezaten) hauek irudiaren gizon gaztearen azalean jartzea bilatuz (emozioak).

- Erru sentimendua piztea bilatzen du oraindik ere armadan izena emateko zalantza dutenen artean. Nola? Irudian agertzen den antzeko egoera batean aurkitzeko aukeran pentsaraziz.
- Arrazoi boteretsua plazaratzen du (genero kodigoetan/ohituretan oinarritua) gizonak gerrara joan daitezten maite duten beren familiaren defentsan. (bide batez, horrelako kartelek genero rola berrindartzen dituzte).



- **Alemaniarrek atzetik ibili ziren** ez ziren britainiarrek bezain trebeak izan propaganda egiteko orduan
  - Kazetari eta militarren arteko koordinazio txarra.
  - Mezu ezkorretan zentratu ziren, askotan kontrakoan atzetik (haien mezuei erantzunez). Mezuak ez zituzten ondo landu




- Porrot alemaniarra: guda-zelaien eta komunikazioaren eremuan.

“1915. urtean etsaiak bere propagandari ekin zion gure soldaduen artean. 1916. urteaz geroztik era intentsiboagoan ekin zion, eta 1918. urte hasieran hodei beltz batean bihurtu zen. Apurka-apurka lan egiten duen erakargarritasun-lan horren ondorioak ikusi daitezke orain. **Gure soldaduek etsaiak nahi zuen eran pentsatzen ikasi zuten.** Alemaniak kale egin zuen propagandaren berebiziko erabilgarritasuna onartzerako orduan; britainiarrek, aldiz, trebetasunez eta deliberazio bikainaz erabili zuten”.

Adolf Hitler: *MeinKampf*, 1925

- **Estatu Batuetako Informazio Publikoko Batzordea edo Kreeel Batzorde famatua (Comittee on Public Information)** George Kreeel buru.


- 1917-1919 bitarteko kanpaina: amerikarren artean gerraren aldeko jarrera zabaldu.
- Watler Lippman eta Edward Bernays. Publizitate modernoaren aita (Edward), giltzarri izan zen kontsumo gizartea eraikitzerako orduan.
- Lan oso eraginkorra egin zuten: kontuan izan lehendakaria diskurtso bakezale batekin iritsi zela gobernura. Lortuko du hala ere batzorde honek gerra nahi zaletasun edo behar hori zabaltzea
- Kreeel Batzordearen lanari jarraituz, posterrak, filmazioak zein abestiak sortu ziren.



**Destroy this Mad Brute**  
1917

**Over there**  
(George M. Cohan, 1917)

*Johnny, get your gun, get your gun, get your gun.  
Take it on the run, on the run, on the run.  
Hear them calling you and me,  
**Every Son of Liberty.**  
Hurry right away, no delay, go today.  
Make **your Daddy** glad to have had such a lad.  
Tell **your sweetheart** not to pine,  
To be proud her boy's in line.*



*The Kaiser: The **Beast** of Berlin* (1918)

- Estatu batuarra esan orde, *Johnny* deitzen die herritarrei.




- (\*) **Bigarren Mundu Gerran (1939-1945)**

- Aurrekaririk gabeko propaganda makinaria jarri zen martxan. Eta jada ez bakarrik kartelen erabilera baita irratia eta zinemarena ere. Lehen mundu gerraren osteko kartelak ere eta gehiago exajeratuko dituzten 2.M.Gn
- Ezaugarriak mantendu eta perfektionatu ziren:
  - Herrialde neutralak konbentzitzea (liburuxkak, argazkigintza, argazki-muntaiak, zinema).
  - Herritarren eta tropen morala altxatzea: kartelak, argazki-muntaiak, prentsa, zinema eta abar bidez.
  - Etsaiaren morala suntsitzea: etsaiari panfleto-bonbardaketak (haien morala suntsitzeko), kontrakoaren trintxeretan ere botako dira beraien hizkuntzan panfletoak, testua behar bezala ulertzeko eta morala suntsitzeko helburuarekin, gutun manipulatuak bidali eta abar.



- Gerra bukatuta, sexu-ordena berrezartzea lehentasuna izango da.
- Estatu Batuetan, gizarte-ordena tradizionalak (kontserbadoreak) kontsumismoarekin bat egingo du **etxekotze diskurtso familiar** erakargarri (hor dago zoriona) bat irudikatuz hedabide guztietatik.
- Espainia Frankistan, gizarte **ordena erreakzionarioena** inposatu egingo da eta genero ereduak “**nazionalizatuko**” dira (nolabait, pribatua politiko bihurtu). Ez bakarrik genero ereduak, bizitzaren eremu guztiak arautuko dira identitate espainolari (frankistek definitua eta baztertzaila dena) erantzun diezaioten.



#### 4. KOMUNIKAZIOA GERRA ARTEKO GARAIAN (1920 ETA 1930 HAMARKADAK)

- Zibilizazio Modernoaren sinesgarritasun krisia (Prometían un mundo mejor y solo han traído desgracias) 1MG ostean. Zibilizazio modernoak ekarri duen akatsik nagusia askatasun gehiegizko bat egon dela, araurik gabeko mundu honetan gauza batzuk ezin dira egin, Hearstek adibidez por mucho Hearst que fuera, berez ez zeukan eskubiderik gezurrak zabaltzeko bere hedabidean.
- Konponbide ezberdinak agertuko dira liberalismoaren (zibilizazio modernoak) akatsak zuzentzeko: batez ere haren kolektibitatearekiko arduragabekeria.
  - Testuinguru politikoki aztoratua eta joera ezkertiarren gorakada.
  - Joera hedonisten hazkundea. Ondo pasatu nahi zuen soilik gizarteak, ez iezadazu eman berri txarrik, film tristerik, nik ondo pasa nahi dut, festa gisa ikusi nahi dut mundua

- Pentsaren kontzeptio liberalean ere aldaketak:
  - Ardura-sozialaren arabera arau batzuk jarraitu beharra (II Mundu Gerraren ondoren hedatuko da) aldarrikatzen duen joera.
  - Kontrolaren (erabatekoa) beharra aldarrikatzen duen joera. Faxismoaren testuinguruan adibidez hedabideak kontrolatzen dira hedonismoarekin eta komunismoarekin bukatzeko (ze hauek konturatu dira komunismoak eta hedonismoak masak mugitzen dituela beraz horrekin bukatzeko), Frankismoarekin berdin.
- **Estatu Batuak** publizitateari esker lortuko da, publizitate eta limurtze teknikei esker herritarrei mezu lasaiak helarazten ba ongizatea bermatuko zela
  - Estatu Batuak eta 1920ko hamarkada baikorra:
    - Masa kontsumoa hedatu zen (Ford-T kotxearen paradigma)
    - *American Way of Life* eta euforia kontsumista.
  - Pentsamendu aldaketa joan zen garatzen hamarkada honetan kontsumoaren funtzionamenduaren inguruan.
  - Zoriona, **berehalako eta etengabeko plazerra bilatuko duen kontsumo eredia.**
  - Edgbar Bernays (Creel Batzordean hasi zen lanean): berari esker eta berak sikoanalisiaren inguruan egindako ikerketari esker publizitateak desira barnekoenei egin behar die dei, ez arrazoari.
    - *“Kontsumitzaileak saldu nahi dugun objektua behar duela pentsaraztea baino, objektu hori erosten badu hobeto sentituko dela, zoriontsuagoa izango dela pentsaraztea da helburua”. Mezuak ez dira izango logika baten barrua, “kontsumitu hau azkarrago iritsiko zarela lanera” logikatik irten eta honako hau adierazten digu: kotxe hau erosita askoz zoriontsuagoa izango baitzara”.*
  - Edgbar Bernays-en ibilbide profesionalaren kanpaina sonatua: emakumeak tabakismora eraman zituenak.
  - Tabakismoa eta genero identitateak:
    - Maskulinitatearekin lotua zegoen.
    - Erretzea, emakumeen kasuan, okertasunaren seinale zen, ausardi eta lotsagabekeria bezala ikusia zegoen.

- “American Tobacco” eta Lucky Strike-en hasierako kanpainetan osasuna eta argaltasuna zin egiten ziren.
- Edgar Bernays eta “Askatasun Argi-zuziak” (*Torches of Freedom*, New York, 1929)
  - Emakume dotore eta *glamour* handikoak eta argazkilariak kontratatu zituen. Gaur egun *influencerrak* izango liratekeenak kontratatu zituen erretzen ateratzeko bere desfilean (emakumeek askatasunaren antortxak piztu zituztela aldarrikatzeko, emakumearen irudia askatasunarekin lotu nahi izan zuelako.)
  - Hainbat egunkarietan agertu zen, bertan, Bernays-ek gizonekiko berdintasun sinbolo bezala deskribatu zituen.
  - Sekulako *shock*-a izan zen, eskandalua eta aztoramendua zabaldu zen, emakumeek erretzea askatasuna eta autonomiarekin lotu zutelako
  - Gaitzespen ahotsak eta jarraitzaileak.
  - Ruth Hale: “Women! Light another torch of freedom! **Fight another sex taboo!**”
- 1929ko Burtsaren Krisiak arriskuan jarri zituen Bernays-en erretzearen, askatasunaren eta barneko ni inkontzientera bidaltzeko publizitatearen planteamendua, publizitate arrazoitua ez egiteko planteamenduak.
- Franklin D. Roosevelt, merkatuaren gehiegikeriak ekiditeko joko arau berriak ezarri eta *New Deal* jarri zuen martxan. Planteamendu keynesiarra; kapitalismoa onartzen zuen, baina enpresa handiei mugak jarri (gehiagikeriak ekiditeko). NEW DEAL: enpresa handien arrakastari mugak jarriko zizkiola (enpresentzat kriston faena ze ematezun komunismoa zabalduko zula presidente honek) eta langile klaseari mesede (prezioen kontrola).
- 1936. urtean berriz atera zen hautatua.
- Enpresek diktadore bezala ikusi zuten Roosevelt eta kontra-erasoari ekin zioten. Bere jarrera Alemaniako naziekin alderatu zuten, diktadore baten jarrerarekin konparatzen zuten Rooseveltek enpresen munduan izan nahi zuen esku-hartzea.

- Korporazio handiek (National Association of Manufacturers) kanpaina erraldoi bat aurrera eraman zuten (1936-1938): Edgar Bernaysen ideietan oinarritutako publizitate kanpaina erraldoiak egiten dituzte.
  - Demokrazia eta negozio pribatua (askea) konektatu behar ziren.
  - Publizitate panelak eta egunkarietan agertzea lortu zuten.
  - **Demokraziaren kontzeptu berri** bat garatu zen: enpresak dira (eta ez politikoak) jendearen deserei erantzuten diotenak eta Estatu Batuetako garapenaren arduradunak.
  - Demokraziaren “aldaera” honen **subjektu politikoa** ez da izango hiritar aktibo bat baizik eta **kontsumitzaile pasibo bat** → hau da proiektu guztiaren gakoa, masen demokrazia batean ordena soziala mantendu ahal izateko.

- **Alemania Nazia**

- Estatu totalitarioa, zentsura goitik behera (ministeriotik pasatu gabe ez da ezer argitaratzen)
- Naziek trebezia erabili zuten propaganda boterera iristeko eta bertan irauteko.
- Krisi ekonomiko eta sozialaz egiten zuten irakurketa era eraginkorrean helarazten jakin zuten frustrazioan murgildurik zegoen populazioari.
- Sozialismo eta nazionalismo baztertzailerik baten arteko uztartzea:
  - Herria/nazioa/kolektiboa (eta bere interesak) indibidualtasunaren (interesen) gainetik zeuden.
  - Hitler herriaren espiritu objektiboaren haragitzea zen. Hitlerrek errepresentatzen du herri alemaniarra. Herria adoratzeko badezu Hitler adoratzeko dezu
  - Hiritartasuna definitzeko biologia-faktorea erabiliko da: arraza artoa. [arrazaren hobekuntza eta eugenesia].
  - Familia-balore tradizionalak eta nazionalismoa defendatuko dira.

- Sexu bakoitza bere lekuan: sexuak bere zeregin soziala markatuta edukiko dute.
  - Emakumea=amatasuna (biologiak markatzen du bere patua)
  - Gizona = familiaren gidaria eta defendatzailea (biolentzia) biologiak markatzen du bere patua)
- Ustezko patu biologiko hauen politizazioa:
  - Ama izatea emakumezko funtziorik baliotsuena eta aberri zaletasunaren adierazlea (gizartearen eta Estatuaren onespina).
  - Gauza bera gudari eta maskulinitatearekin.
- Naziek psikoanalisian eta **masen irrazionaltasunaren teorietan** sinesten zuten. Erabateko kontrola hedabideetan; dena planifikazio baten menpe.
- Irrazionaltasun hori gidatu beharra zegoen indar produktibo batean bihurtzeko: beren ereduari erantzungo dion nazio bat sortzeko. Masen irrazionaltasun hori bideratuko dugu "alemaniaren mesedetan". Irrazionaltasuna = Masa konkistatu nahi baduzu mezu emozionalak transmititu eta ez zaitez oinarritu arrazoi eta gauza abstraktuetan, ez baitzara bihotz askotara iritsiko
- Hasiera-hasieratik arreta handia jarri zioten hedabideei. Boterera iritsi eta bertan mantentzeko, baita masen iritzia bereganatzeko.
- Hedabideak kolektiboaren/herri alemaniarren interesen zerbitzura jarri.
- Kontrol zorrotza hedabide guztien gainean→ hau delako alemaniar herriaren izenean guztion mesederako egiten den zerbitzu, kolektiboaren interesak jarri behar dira norbanakoaren interesen gainetik.
- Hedabide guztien erabilpen sistematikoa gauzatu zen alderdiaren mezuak bazter guztietatik zabaldu ahal izateko. Zer eta nola esaten den bakarrik ez da kontrolatuko, nazien mezu propioak herriari helarazteko ere erabiliko dira hedabideak. Kaleetan bozgorailuak alderdiaren hitzaldiak eta mezuak egoteko uneoro.
- Alderdiaren mezuekin bat ez zetozen profesionalen kontrola eta jazarpena.

- **Joseph Goebbels** Propaganda eta Hezkuntza Popularraren Ministerioaren burua. Hezkuntza eta propaganda kontrolatzeko
- **Alemaniar guztiei** zuzendutako mezu emozionaletan oinarritutako propaganda-proiektua: Naziek kolektibotasunaren izenean hitz egiten dute eta batzuetan dirudi sozialismo batean oinarritzen dela baina hau ez da hala izan ere, uko egiten diote klaseen arteko borrokari baina haiek aukeratzen dute nor den eta nor ez alemaniarra
  - Sinpletasuna (hizkuntza manikeoa: gaizkia vs. ongia). ---> Manikeismora jotzen dute beti Alemaniarrak eta bestiak, onak eta txarrak. Oso mezu sinpleak eta zuzenak zabalduko dituzte.
  - Orkestrazioa edo errepikapena. errepikapenari esker lortzen da zerbait egi bihurtzea.
  - Kutsatze teknikak norbanakoa masan disolbatu zedin. kontzentrazio handiak egiten dituzte, herria guztiaren parte dela
- Masen irrazionaltasun emozionala bi norabidetan bideratu zuten: → Honekin lotuta naziek egingo duten hedabideen erabilpenak, bi helburu izango ditu, alde batetik irrazionaltasun hori produktiboa izatea.
  - **Liderrarekiko gorespenera:** Hitlerren gidari funtzioa goستن zuten narratiba oso bat eraiki zuten eta bere presentzia publiko konstantea bermaturik geratu zen hedabideei esker: irratan, zineman, karteletan, egunkarietan... Hedabideen bitartez lotu nahi dena zera da: masen irrazionaltasuna bideratzea liderrarekiko gorespenera bultzatzera.
  - **Bestearekiko gorrotoa** bere gizatasuna ezabatuz: judutarrak, komunistak, ijitoak, homosexualak, desgaituak eta abar. alemaniarra ez diren guztien gorrotoa sortuz.
- Ez zen ezer ere geratu doktrinamendutik kanpo, denak jarraitu zion komunikazioaren planifikazio bati. Mezurik irrelebante eta txikiena ere nazien propagandara bideratua dago.



- Hitlerren **DISKURTSOAK**. Guztia zuen oso pentsatua edo hori esaten da behintzat
  - Xehetasunez prestatzen eta ikasten zituen, guztien bihotzetara iristeko.
  - Sonoritatea eta gorputzaren hizkuntza oso ikasiak.
  - Bereziki klase ertainetako jende arruntaren [eta burgesiaren] subjektibitateekin konektatzen jakin zuen. Klase ertaineko jendarte konbentzitu zuten Alemania berri bat berreraikitze aitzakiarekin, ondorengo esanez: politikariek bizkarra eman ziola eta lidergo indartsu bat behar zela Alemania indartsu bat sortzeko
  - Jende horrek klase politikariak bizkarra eman ziola eta lidergo berri baten beharrean sinetsi zuen.
  - Elkarretaratzeetan eszenografiaren eta sinbologiaren protagonismoa: herria-liderra-alderdia
  - Toki ezberdinetan kokatzen ziren bozgorailuak, tentsio eta euforia giroa lortuz.

### **PRENTSA Nazien Alemanian** (Kontrol absolutua, beste hedabideetan bezala)

- ez da naziei gehien gustatzen zaien hedabidea, hori irratia da, beraz hau bigarren plano batean geratuko da
- Komunistak, sozialdemokratak eta beranduago katolikoek ere bai ikusi zuten beren egunkariak itxi egiten zirela Estatuaren interesen mesedetan.
- Propaganda Ministerioak jarraibideak eta "lengoaiaren arauak" bidaltzen zituen erredakzioetara, zer publikatu eta zer ez adieraziz, eta berina terminoekin.
- Nazien garaiko hiru egunkari esanguratsu:
  - *Völkischer Beobachter*—"Herriko behatzailea"— [NSDAPren egunkari ofiziala] alderdi naziaren egunkari ofiziala.
  - *Illustrierter Beobachter* (aldizkari ilustratua). Bere berezitasuna argazkietan datza, aldizkaria argazkiekin osatua egongo da



- *Der Stürmer* –Erasotzailea– astekari ezaguna judutarren kontrako mespretxu eta eraso mezuak zabaltzeagatik. Azal guztietan azaltzen zen “Judutarrak gure zorigaiztoa dira” leloa. baina ezagunena hau da, sekulako gorroto mezuak zabaltzen ziren judutarren kontra

**IRRATIA Nazien Alemanian** (Irratia izango da naziek trebekien erabilitako hedabidea eta gainera prentsarekin alderatuta irratiari arreta gehiago emango diote)

- Gobernuaren mezua etxe alemaniar guztietara eraman zuten transistore merkeari esker: Bere obsesioa zen, garai hartan oso emozionantea zen Hitlerren ahotsa zure etxean zuzenean aditzea
  - *Volksempfänger* edo *Herriaren Irratia* (1933) masan produzitu zen. oso erabilgarria, txikia eta erabilterraza (bi botoi: itzali/piztu eta bolumena ; emisora bakarra zegoen)
  - Gerran zehar bertsio merkeago bat atera zen: *DKE38* delakoa. Bigarren mundu gerraren ostean sortuko den irrati oso merkea
- **Propaganda masiboak**: egunkari, zine areto eta kartelen bidez sekulako kanpaina egin zitzaion irrati-aparailuari.
- Kaleetan bozgorailuak jarri zituzten jendarte handiak biltzen ziren tokietan.
- Irratsaio guztiak zeuden erregimenaren kontrolpean.
  - Edukietan erabateko uniformitatea, doktrina ofizialaren printzipioen-menpekoa.
  - Hitlerren eta alderdiaren hitzaldiak.
  - Musika alemaniar herrikoia zein klasikoa; konpositore judutarren emanaldiak debekatuak zituzten. Musika atzerritarra ere, pixkanaka, emanaldietatik kanpo geratu zen.

## ZINEMA Nazien Alemanian

- Buruzagi naziak sekulako mirespena izan zuten zinearekiko.
- Aurreko garaiko (1919 – 1933) zinema espresionistaren hainbat sortzailek Hollywooderako bidea hartu zuten. Alemanian zinemagintzaren munduan lan egiten zuten judutarrak Holliwoodera ihes egin zuten
- Masen bihotzetara iristeko tresna aparta zela kontsideratzen zuten. Aurretik existitzen ziren produktoreak nazionalizatu egingo dira, estatuak hartuko du haien ardura
- Zinema produkzioa nazionalizatu eta nazi propagandaren makinariaren baitan txertatu zen.
- 1934. urteko zinematografia araudiak:
  - Aurretiko zentzura ezarri zuen
  - Sortzaile guztiak arraza ariokoak izan zitezten agindu zuen.
  - Produkzioek balore eta espiritu nazia erakutsi behar zuten: *Juss judutarra*(1940) eta *Betiko judutarra* (1940) Youtuben daude ikusi nahi izanez gero.
- Sorkuntzan sekulako bikaintasuna erakutsi zuen emakumea izan zen **Leni Riefenstahl**. Oso lan onak teknikoki
  - Erbestera jo ez zuen zinemagile eskasen artean dago.
  - Bere trebezia eta bikaintasun guztia erregimen naziaren zerbitzura jarri zuen.
  - Erregimenak beharrezko baliabide guztiak jarri zizkion eskuragarri eskatutako proiektuak aurrera eraman zituen.
- **Borondatearen garaipena (1935):**
  - Alderdi Naziaren 1934.urteko Konbentzioa (München).
  - Historiako propaganda politikoko dokumentalik bikainena. eta gero sorutko direnentzat oinarri izan zen
  - Ondorengo ekitaldi masiboen filmazioetarako oinarriak jarri zituen.
  - Masa fenomeno bat izan zen.

- [Pelikula ikusteko lotura:](https://www.youtube.com/watch?v=Py9Phkv5Glg)  
<https://www.youtube.com/watch?v=Py9Phkv5Glg>
  
- ***Olympia (1938)***. Berlineko joku olimpikoen inguruan dijoa pelikula
  - Historian filmatu diren lehenengo Joko Olinpikoak dira (1936.urtekoak, Berlin)
  - Nazismoaren purutasuna, ahalmen fisioa eta garbitasunaren goraipamena egiten du.
  - [Pelikula](https://www.youtube.com/watch?v=ILnGqMoNXRI) [ikusteko lotura:https://www.youtube.com/watch?v=ILnGqMoNXRI](https://www.youtube.com/watch?v=ILnGqMoNXRI)